




KIPUTZ



Zulo bat. Tranpa bat. Leize bat. Hainbat animalia amildegi horretara erori ziren ezustean, deskuidu edo behaztopa soil baten eraginez. Kiputz kobak irentsi zituen eta milaka urtetan pilatuta egon ziren bertan; bison-teak, elur-oreinak, oreinak, lehoiak, hartzak..., guztiak ere sei metroko tranpa horretan behera amildu ziren, bertan heriotza aurkitzeko.

Un agujero. Una trampa. Una sima. El abismo donde animales incautos perecieron por un descuido, un simple traspiés. La cueva de Kiputz se los tragó y permanecieron apilados durante miles de años: bisontes, renos, ciervos, leones, osos... todos ellos se precipitaron por esta trampa de seis metros y encontraron el mismo destino fatal.

Miel Sasieta Larrañaga
1931-2019
in memoriam





Jesus Mari Lazkano.
Larusjilet.
Pastel y lapiz sobre papel.
22 x 80 cm 2017

KIPUTZ

Argitalpenaren Zuzendaria: Jantxo Agirre-Mauleon

Edukiaren koordinazioa: Eider Conde, Mikel Edeso. Aranzadiko Komunikazio Saila

Testuak: Jantxo Agirre-Mauleon, Leire Barriuso, Jone Castaños, Eider Conde, Pedro Castaños, Mikel Edeso, Pilar Fatás, Xabier Murelaga, Miel Sasieta.

Edukiaren Zuzentzailea: Karlos Almorza.

Maketazioak: Tamtam S.L.

Azaleko, hasierako eta bukaerako margolanak: © Jesus Mari Lazkano, VEGAP, Donostia, 2019.

Inprimategia: Leitzaran Grafikak S.L.

Aranzadi Bilduma 06

ISBN 978-84-17713-21-8

ISSN 2255-0437

L.G. / D.L. SS 01172-2019

Eskerrak

Peru Bilbao, Ana García, Josu Larrañaga, Jesus Mari Lazkano, Munibe Arkeologia Taldea, Mutrikuko Udala, Carlos Olaetxea, Sonia San José, Alex Turrillas.



Zorroagaina 11

20014 Donostia / San Sebastián

Tel.: 943 466142

e-mail: idadzkaritza@aranzadi.eus

www.aranzadi.eus

KIPUTZ

Historiaurreko amildegia
Un abismo en la Prehistoria

Mutriku
2019

STM
San Telmo Museoa



DK
donostia
kultura



MINISTERIO
DE CULTURA
Y DEPORTE



|G|O|R|D|A|I|L|U|A|

Gipuzkoako Ondare Bilduman Zentrea
Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



UNIVERSIDAD
DEL PAIS VASCO



Euskal Herriko
Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA BILKA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Mutriku Udala

Geoparkea

Euskal Kostaldea - Costa Vasca




00


Aurkezpena

*“¡Mira, papá...
bueyes!”*


María Sanz de Sautuola, 1879



Crâne



Bison



Vue ventrale

Pilar Fatás Monforte

Altamirako Museo Nazionaleko eta Ikerketa Zentroko Zuzendaria

Bada zerbait gure iragan antzinakoenean halabeharrez erakartzen gaituena; milurtekoak daude garai haien eta gure artean, baina badakigu jadanik hemen ginela; nahiz eta klimatologia nahiko gogorra izan, sormena eta teknologia hasiberria erabiliz bizirauteko bezain ondo moldaltzen ginela. Gizateriaren iragan prehistorikoarekiko erakarpen hori areagotu egiten du garai hartako argazkirik, ahozko testigantzarik eta gerta-kizunen lekukotza idatzirik ez izateak eta hori ezohikoa da, eta jakin-mina sortzen du, gaur egungo ikus-entzunezko gizartean bizi garenon artean.

Faltan sumatze hori, hitzaren zentzu antropologikoan, Historiaurrearen ikerketa-diziplinen bidez gaingitzen dugu; izan ere, haiekin arakutzen baititugu denboraren joanak suntsitu ez dituen aztarna eta hondakin guztiak, gure iragana berreraikitze erabiltzen ditugun lehen mailako iturriak izanik, ondoren, hitz eta irudietara itzuli ahal izango ditugunak. Izan ere, hitzen eta irudien bidez azaltzen baitiegu herritarrei milaka urteko iragana, irakurtzera zoazen katalogo honen moduko argitalpenetan, eta hau argitaratzearen arrazoi den aldi baterako erakusketaren modukoetan.

Horrela, Historiaurreari aurre egiten diogu ehundaka galdera eginez, besteak beste, gure itxura fisikoari, gure kidekoekin komunikatzeko eta erlazionatzeko moduari eta gure elikadura-iturriei buruz. Eta galdera horiei erantzuteko ere ezinbestekoa da gure ingurunea nolakoa zen ezagutzea, hari loturik baikaude ezinbestean, nahiz eta, gaur egun, gure aliatu izan beharrean etsai bihurtu dugula dirudien. Horrela, Historiaurrean zehar eta, batez ere, Paleolitoan zehar, Naturarekin eta Naturan bizi ginen

garai hartan, orografia, klima, animaliak, landareak, azken finean ekosistema osoa, Gizateriaren garapenaren eragile izan ziren. Inguruko baliabideetatik ahalik eta onurarik handiena ateratzeko garatu genuen gure teknologia, eta hasiberria bazen ere, eraginkorra eta efizientea izan zen. Geure existentziak berak frogatzen du hori.



Lehen gizaki taldeak nomadak ziren, inguruko paisaia ustiatzen zuten bilketa eta ehizaren bitartez. Irudia: Aranzadi Zientzia Elkartea. 2019



Altamira koba. Polikromoen aretoa. Etzanda dagoen bisontea. © Museo de Altamira. Ministerio de Cultura y Deporte de España. Egilea: P. Saura.

Eta horrela hurbiltzen gara Kiputzengana, Kantauri kostaldearen inguru honetako paisaia ezagutzeko funtsezko aztarnategia garai zehatz batean, azken glaziazioaren amaieran hain zuzen ere (duela 20 000 eta 15 000 urte artean). Kiputzen ez zen inoiz gizakia bizi izan, eta horrela, inolako iragazkirik gabe, haren azterketak garai hartako fauna ezagutzeko balio digu; izan ere, han harrapaturik geratu ziren animaliek (indusketan 18 000 hezur-aztarna baino gehiago berreskuratutako zituzten) tranpa natural honetan aurkitu bazuten ere amaiera, hori ez zen izan ehizarako edo beste edozein giza jarduerarako aukeratuak izan zirelako. Oreinak, bisonteak, elur-oreinak, azeriak, sarrioak, zaldiak, hartzak eta lehoiak bizi ziren paisaia hartan, eta Aranzadi Zientzia Elkartea eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean egindako ikerketari esker espezie horietako ale askoren berreraikitze fisikoa egin ahal izan da. Zalantzarik gabe, eta ageriko arrazoiengatik, nire gogokoentzat aukeratuko dut estepako bisonte baten garezur osoaren aurkikuntza; ale bakarra da Iberiar penintsulan, izan ere, adarren arteko metro batetik gorako zabalerak harri eta zur uzten gaitu.


Orain jadanik irudika dezakegu Deba bailarako paisaia animalia horiez eta gure moduko gizakiz beteta. Gizaki horiek fauna horren irudiak memorian gordeko zituzten eta iruditeria kolektiboaren zati bihurtuko ziren, bizi ziren haitzuloetako hormetan nahiz egunero erabiltzen zituzten tresnetan, eta erabilera sinbolikoa zutenetan, irudikatuta. Izan ere, animaliak baitira gure Lehen Artearen -Paleolitoko labarretako artea eta arte higikorra- oinarritzko gaia, eta Kiputzen berreskuratutako animalien berreraikuntzak are gehiago hurbiltzen gaitu, posible bada, gure Aurreneko Guen unibertsora.

01


Mutriku

“Euskal Itsasoaren Talaia”

Bœuf G








Rhinocéros G



Cheval G





vue postérieure



vue interne



vue supérieure

18 Kiputz IX aztarnategia bere testuinguruan ulertzeko inguruko paisaiari erreparatu behar zaio. Leizea Mutriku udalerrian kokatuta dago, Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugatik gertu, Kantauri itsasotik oso hurbil. Izan ere, iparraldera Kantauri itsasoak bustitzen du Saturrango eta Mutrikuko hondartzek osatzen duten itsasbazterra. Bertako orografia malkartsuak historiaurreko aztarnategi ugari egoteak ahalbideratu zuen. Duela milaka urte paisaia zeharo desberdina zen, azken glaziazioan estepa nagusitu baitzen eta gaur egun pentsaezina diren animaliak handik igaro eta bertan bizi izan baitziren: estepako bisonteak, elur-oreinak, lehoiak, iledun errinozeroak...

Paisaia horren aztarnak gaur egun hautemanezinak badira ere, paleontologiak, arkeologiak eta beste zientzia-diziplina batzuek iragan horretaz zerbait jakiteko aukera ematen dute. Gipuzkoako orografian mantu berdeen azpian ezkutaturik denboraren kapsulak gorde dira, milaka urtetan negu iraunkor batean aingurata eraldatu gabe mantendu eta norbaitek aurkitzeko zain daudenak, egungo Kantauri itsasoko ertzean imajinatu ezin dezakegun paisaia baten sekretuak agerian jartzeko.



Mutrikuko portu zaharra. Yurrita sendiak utzitako argazkia.



GIPUZKOAN, KIPUTZ

Kiputz ingurua ez dago inongo bidegurutzetan, eta bertatik ez da pasatzen bide nagusirik. Astigarri-
biatik Mutrikurako bidearen ezke-
rretara geratzen da, erdi ezkutuan.
Bere toponimia aldiz deigarria da,
Gipuzkoarekin guztiz erlazionatuta
baitago.

Kiputz(a)/Giputz(a) izenak
gipuzkoarrak bizi ziren eremua
(edo gipuzkoarren baten jabetza)
adieraz zezakeen sasoi batean,
horren indargarri ditugu inguru hori
Bizkaian kokatzen dituzten antzi-
nateko eta Erdi Aroko erreferentzia
dokumentalak. Beste aukera bat izan
zitekeen gipuzkeraz hitz egiten zute-
nei erreferentzia egiteko sortu izana.

Mutrikuko Astigarribia auzoak altxor hauek bere barnean gorde ditu. Historian barrena ezkutaturik, auzo hau Iparraldeko Donejakue bidearen puntu garrantzitsuenetariko bat izan da eta Europa guztitik zetozen erromesen geldiunea izan zen. Historiaurreko animaliak lehen eta gizakiak geroago ibili ziren gunetara, inguruak eskaintzen zituen baliabideak ustiatzen.

Ordudanik eta gaur arte, arrantza izan da Mutrikuko ardatz ekonomikoetako bat. Gainera, ondorio biderkatzailea izan du beste ekonomia-sektore batzuetan, zehazki, ontzi-industrian eta kontserba-industrian. Azken hau gaur eguneraino iritsi den aktibitatea da. Arrain kontserben antzera, Kiputz eta inguruko aztarnategi arkeologikoak iraganaren kontserba-latak izan direla esan daiteke.

Arrantzan lanean.
Yurrita sendiak
utzitako argazkiak.






ACCIGNE
- SAHTE -
SALTED ANCHOVIES
MADE IN SPAIN
NET CONTENTS
2.14 LBS. 5 OZ.

02

Azken Glaziazioaren paisaia


*“¡Cómo deseó el invierno!
Austeramente, en orden
minucioso de blanco y
negro de hielo y roca,
todo deslindado, de
corazón a fría disciplina
sometió, exacto cual
copo de nieve”*

Sylvia Plath (1932-1963)



Crâne

Vue latérale G.



Bouquetin Ó



Urak azidotu egiten dira karbono dioxidoa hartzean eta hauek, kare-haitza disolbatuz, haitzuloak eratzen dituzte. Karbono dioxidoan aberaste hori urak materia organiko askodun lurra igarotzean gertatu ohi da. Kare-haitzean batik bat etenak dauden puntuetan ematen da disoluzioa, besteak beste, hausturetan eta geruzen arteko ukitze-guneetan. Horregatik, mendigune karstiko baten barrualdeko galerien antolaerak mendigunearen kanpoaldean ikus daitezkeen failen eta diaklasen isla izan ohi dira.

Karsta aktibotzat hartzen da dabilen urak haitza disolbatzen duenean eta morfologia zirkularreko galeriak eratzen dituenen. Haranak artekatuz doazen heinean maila freatikoa jaitsi egiten da eta disoluzioa nahiz galerien eraketa kota baxuagoan gertatzen dira. Maila freatikoaren eta kare-haitzaren disoluzioaren jaitiera horrek giltza-zulo izeneko morfologiak sortzen dituzte. Kota altuagoetako haitzuloak ez aktibo izatera igarotzen dira, eta disoluzio-fasearen ostean jalkinen, galerien barrualdean nahiz kanpoaldean eratutakoen, metaketarena dator (Aranburu et al, 2016). Metaketa-fase horretan izaten da galerien okupazioa eta aztarnategi arkeologikoak edota paleontologikoak eratuko dituzten aztarnen eta jalkinen pilaketa.

Kantauri itsasertzeko historiaurreko aztarnategi gehienak haitzulo karstikoetan daude, giza taldeek nahiz beste harrapakari batzuek babes modura erabilitako haitzuloetan. Guztiek utzi zituzten beren jardueren aztarnak (harrizko eta hezurrezko industria, sute-giak, kontsumitutako faunaren hondakinak...) haitzuloen barrualdean nahiz kanpoaldean. Hala ere, kanpoaldean aztarnak kontserbatzeko aukera oso txikia da. Horregatik dira hain ugariak haitzuloetako aztarnategiak. Horri esker oso antzinako erregistroak dituzten estratigrafiak kontserbatu dira, aztarnategi arkeologiko eta paleontologikoak eratuz.

Kantauriko itsasertza da azken glaziazio bioaniztasunari buruzko informazio osotuena duen Iberiar penintsulako eskualdea. Hala ere, giza talde ehiztari-biltzaileak bizi izandako haitzuloetako fauna-metaketetatik datoz datu gehienak. Han aurkitutako

fauna ez da beti aztarnategia inguratzen duen berbera izaten, ehizatutakoa baizik; izan ere, desberdintasunak izan baitaitezke. Baldintza horrek muga handia suposatzen du paleoingurunea modu fidagarrian berreraikitzeke orduan. Bestalde, erabat paleontologikoak diren aztarnategietan, gizakiaren esku-hartzerik ez dagoenetan, ez da mota horretako okertasunik eta, beraz, bioaniztasunari buruzko informazioa fidagarriagoa da.


Zoritxarrez, oraingoz soilik bederatzirentzat dira indusketa sistematiko bidez aztertu eta ondoren faunaren azterketa osoa egin zaien Kantauri kostaldeko aztarnategi paleontologikoak; aldiz, ehunka dira izaera arkeologikokoak. Aztertutako aztarnategi paleontologikoen artean Kiputz IX (Mutriku, Gipuzkoa) nabarmentzen da, bai aztarnen kopuruagatik, bai haien kontserbazio bikainagatik.

Aztarnategi honetan bat egin duten baldintzei esker bertan berreskuratutako faunak ikerketarako interes berezia dauka. Haitzulo honek tranpa natural moduan funtzionatu zuen denbora luzean eta inguruko animaliak erortzen ziren bertara. Beraz, hezurak pilatzeko prozesuan ez da izan inolako hautaketa-faktoririk, aztarnategi arkeologikoetan edo haragijaleen zuloetan gertatzen den moduan. Aztarnategia inguratzen zuen ekosistemako espezieen lagin adierazgarria da. Gainera, estepako bisontearen eta elur-oreinaren aztarnak Iberiar penintsulan orain arte berreskuratutako osoenak dira, eta oreinarenak ugarienen artean daude.

KIPUTZ




- Kosta lerroa gaur egun
- Kosta lerroa orain dela 14.000 urte



ESTEPA-LURRALDEA


Pleistozenoan (duela 2.59 milioi urtetik, orain dela 10.000 urte arte) klima beroaldi eta izotzaldien artean zebilen, planetako ekosistemak eta espezieen iraupena aldatuz. Horrela, azken Izotz Aroan (duela 110.000 urtetik, orain dela 10.000 urtera) Kantauriko itsasertza estepa handi bat zen, eta gaur egun gure mendietan aurkitzea ezinezkoa den animaliek bazkatzen zuten: elur-oreinak, errinozero iletsuak, estepako bisontek, mamutak... gizakiarekin batera bizi izan ziren izaki erraldoiak baina klima epelduz zihoan heinean desagertzen joan zirenak.

Garai hartan, itsasoa gaur egungo itsasertzetik hemezortzi bat kilometro urrunago zegoen, eta gaur egun itsas plataforma kontinental dena estepa izugarri bat zen, sarritan elurrez estalia eta landaretza gutxikoa, alderdi artikoetako herrialdeen antzekoa.



Makrougatzun lurtarren bioaniztasunaren garapena ezinbesteko osagaia da, azken glaziazioako aldaketa klimatikoaren eraginak aztertzeko. Arrazoi horregatik, etorkizun hurbilean, aztarnategi guztiz paleontologikoetako aztarnen ikerketa paleontologiko klasikoa eta isotopikoa egin beharko dira, isurialde kantauriarreko Goi Pleistozenoko paleoaniztasuna ezagutzeko. Eta garrantzitsuenetakoa, bere kronologiagatik nahiz espezie bakanen (besteak beste, estepako bisontea eta elur-oreina) aztarnen aberas-tasunagatik, Kiputz IX da.





Azken glaziazioan Kantauri isurialdeko kostaldea hemezortzi bat kilometro sartzen zen. Berreraikitako mapa honetan egungo kostaldea marra etenez irudikatu da, gaur egungo hiriburu eta leizeetako aztarnategi arkeologiko garrantzitsuenak irudikatuz. Irudia: Ana García.





Paleolitoko paleoinguru glaziarraren interpretazioa
© Museo de Altamira. Ministerio de Cultura y
Deporte de España. Marrazkia: M. Antón.

Gipuzkoako miaketa arkeologikoak: Munibe taldea

03

*“Aurkitzeko,
bilatu behar!”*

Miel Sasieta, 2007



Sanglier D.

Chamois D.

Chèvre


HUMERUS



re D.



Bouquetin D.




Mouflon G.



Mouton D.



Renne D.



Cerf D.

Edozein aztarnategi arkeologiko edo paleontologikoren historia haren aurkikuntzarekin hasten da ezinbestean. Kasu gehienetan, salbuespen gutxi batzuetan izan ezik, hori ez da zoriaren ondorio izaten soilik. Horregatik, aurkikuntza bakoitzaren atzean miatzaileen merezimenduzko lana, sarritan ahaztua, egoten da beti.


Gipuzkoako aztarnategien aberastasuna, batez ere Deba eta Urola arroetakoa, ez da kasualitate hutsa. Ekaingo margoen eta Praileaitzeko zintzilikarioen aurkikuntzen atzean pertsona-talde bat dago, hamarkadetan zehar Gipuzkoa ipar-mendebaldeko haitzulo ugari miatu dituena. Atal hone-tan Munibe Arkeologia Taldeari aintzatespena egin nahi zaio, hura izan baitzen Kiputz IX aztarnategia aurkitu eta ondoren induskatu zuena.





Munibe Taldeko kideak
Joxe Migel Barandiaranekin.
1991. Munibe Arkeologia Taldea.

Berrogeita hamarreko hamarkadan, bost gazte azkoitiarrek (Miel Sasieta, Julen Juaristi, Claudio Arzallus, Bernardino Garate eta Carmelo Mendizabal), historiaurre eta paleontologiaren arloko jakin-minak uztarturik, ibilaldi batzuk antolatu zituzten fosilak biltzeko. 1964 eta 1969 bitartean erabaki zuten jarduerak historiaurrearen ar- lora bideratzea. Horrela, Antxieta taldeak berriki aurkitutako Ekain koba bisitatu eta bertako labar-artearen multzoari buruzko lehenengo argazki-erreportajea egin zuten. Gainera, Miel Sasietak buruak margotu gabe zituzten bi hartzak aurkitu zituen.



Joxe Migel Barandiaranekin
Ataunen. 1971. Munibe
Arkeologia Taldea.

Geroago, Aranzadi Zientzia Elkartearen sartzeari gain, Lezetxikin (Arrasate, Gipuzkoa) induskatzen ari zen Jose Migel Barandiaranekin harremanetan jarri ziren. Une horretatik aurrera *Grupo Aranzadi de Azkoitia* izenarekin jardun zuten eta 1974an Insausti jauregian, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen sortzailearen jaiotetxean, ezarri zuten egoitza. 1974an Azkoitiko hiribilduaren sorreraren 650. urteurrena zela-eta, erakusketa txiki bat antolatu zuten ordura arte egindako kata batzuetan aurkitutako materialekin. Jarduera horri esker zenbait gazte hurbildu ziren taldera eta hurrengo urteetan egindako jardueren nukleo gogorra osatu zuten.

Miel Sasieta Ermittiako
aztarnategira bidean. 1975.
Munibe Arkeologia Taldea.



Kiputzetik gertu dagoen Agerre baserrian, Mutrikun. 1982. Munibe Arkeologia Taldea.



Laurogeiko hamarkadaren hasieran, eta Aranzadiko Historiaurrea sailak iradokita, taldeari Munibe Taldea izena ematea erabaki zuten, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen sortzaile izan zen Xavier de Munibe ospetsuaren omenez. Hain zuzen ere, haren jaiotetxea zen taldearen egoitza. 1983an, zortzi kide bertan zirela, elkartearen sorrera-akta sinatu zuten, eta 1986ko amaieran behin betiko estatutuak onartu zituzten.

Hamarkadetan zehar taldea trebatuz joan da eta Gipuzkoako hainbat indusketetan parte hartu du, bai haitzuloetan (Aldatxarren, Zerratu, Kiputz IX, Lokatza, Aitzbitarte, Aizkoltxo, Artazu, Praileaitz, Astigarraga...), bai monumentu megalitikoetan (batez ere, Aralarren). UPV/EHU, Aranzadi Zientzia Elkarte eta Agiri Arkeologia Elkarteko arkeo-

logiako eta paleontologiako hainbat eragilerekin batera lan eginez, gure lurraldetik kanpora ere zabaldu dute lan egiteko eremua besteak beste, Bizkaia, Araba, Frantzia (Colombiers) eta Mendebaldeko Saharara. Gaur egun arte, Munibe Taldeak historiaurreko hainbat aldi eta kulturatako 100 aztarnategi baino gehiago ditu katalogatuta.

Ikerketa-lanetan aritzeaz gain, aldi baterako zenbait erakusketaren eta Azkoitiko San Martin ermitako erakusketa iraunkorraren komisario izan dira, publiko orokorrari hitzaldiak eman dizkiote eta eskoletan solasaldi didaktikoak ere eman dituzte. 2019an, Munibe Taldea dozena erdi kidek osatzen dute eta udal jabetzako egoitza finkoa dauka.




Juan Mari
Arruabarrena,
Miel Sasieta, Jesus
Larrañaga eta
Xabier Alberdi,
Munibe Taldea. 2018

04

Kiputz, Historiaurreko amildegia


*“Ilbeltzeko hotzak, leizera
daramatza hartzak”*

Esaera herrikoia



vue antérieure

Ours D.



vue postérieure

Kiputz IX (Mutriku, Gipuzkoa) leizea elur-orein eta bisonte aztarnak -gehienak duela 20.000 urte ingurukoak- gorde dituen Iberiar penintsulako hezurtoki handienetakoa da. Gizakia ez zen inoiz bizi izan leize-zulo horretan, animalia ugari amildu eta hil ziren tranpa naturala baino ez zen izan.

Aztarnategia 2002an aurkitu zuen Munibe Taldeak Mutriku Udalerriaren hegoaldeko sektorean egindako miaketa sistematikoei esker. Aztertutako haitzuloen artean (17 gutxienez) berehala nabarmendu zen Kiputz IX, bertan aurkitutako aztarnen garrantziagatik. Kalbarioko (Laranga auzoa) mendi-lepoan sortu eta Astigarribia auzoan Deba ibaira isurtzen den Xoxuarte erre-karen ezkerrean dagoen haitzuloa da. Aztarnategia iparraldetik Urkamendi mendiak (297 m) eta mendebaldetik Arno mendiak (618 m), inguruko mendirik garaienak, mugatzen dute. Gaur egungo landare-estaldura batez ere artadi kantauriarrak osatzen du.

Kiputz aztarnategi multzoak kokatzen diren bailara. 2018. Aranzadi Zientzia Elkarteak.



Kiputz





Kiputz IX amildegian milaka urtetan gorde dira Iberiar Penintsulako elur-oreinen eta bisonteen hondarrak, gehienak orain 20.000 urtekoak, gutxi gorabehera. Gizakiak ez ziren inoiz leizean bizi izan, tranpa natural bat zen, eta ehundaka animalia bertan izan zuten zorigaiztoko amaiera.

Aurkitutako 18.296 hezur pusketatik abiatuta, Kiputz IX leizean aurkitu dira Iberiar penintsula osoko elur-orein, bisonte eta oreinen multzo paleontologiko oparoenak. Askotan hezurdura horiek ia osorik berreskuratu dira, eta gutxi batzuk posizio anatomikoan zeuden, hau da, hil baino lehen hartu zuten jarrera berean.

Aztarnategi horren jatorrian harraparirik ez zegoenez, hezur gehienak osorik kontserbatu dira, inork ere kontsumitu ez dituelako. Gainera, inolako hautaketarik izan ez denez, Kiputz IX aztarnategiko edukiak zehazkiago islatzen du inguruko fauna, eta horrenbestez, Azken Maximo Glaziarrean ekosistema horretan izan ziren baldintzak.






Kiputz IX, animalien tranpa
naturalaren interpretazioa.
2019. Xabier Murelaga.

Metaketa-fasea H maila osatzen duten hondar konkrezionatuekin hasten da. G mailak adierazten digu geldialdi bat izan zela materialen metaketan eta hezetasunak zolda karbonatatu sortzea eragin zuen. F maila da ornodunen aztarna gehien dituen eta, ziur aski, tranpa naturala aktiboena izan zen garaia adieraziko liguke. E maila zolda karbonatatu bat da eta, berriz ere, egoera hezea nagusi zela adierazten digu. D maila ez da hain aberatsa ornodunen aztarnei dagokionez eta C mailan jada ez da hezurrik agertzen. Baliteke D mailatik aurrera horrenbeste animalia ez erortzea tranpara edo haitzuloaren sarrera harri-blokeak erorita itxi izana, izan ere, D eta C mailetan asko ugartu baitzen neurri handiko blokeen erorketa. B maila beste zolda karbonatatu bat da eta, azkenik, A maila zen leize-zuloko metakina estaltzen zuena, berau aurkitu zutenean.

Honela interpretatzen dugu Kiputz IX tranpa naturala: sarrera haitzuloaren iparraldeko muturrean izango zuen eta, hasieran, karstaren fase aktiboan eratutako tutu-formako morfologia izango zuen eta, animaliek haitzuloan barneratzean, maila freatikoa jaistean higatutako erorketarekin topo egingo zuten. Animaliak zulo horretan erortzen ziren, eta haien hondakinak erdialdean pilatzen. D eta, batez ere, C mailetan jada ez ziren ornodunen horrenbeste aztarna pilatu; hori izan daiteke haitzuloaren sarrera itxi egin zelako edo sedimentuak zuloa betetzen zuen heinean haren sakonera txikiagoa izango zelako eta, beraz, erorketa hain larria izango ez zenez, batzuek irtetea lortuko zutelako. Bi aukerak hauek baztertzen ez baditugu ere, seguruenik blokeak erortzean sarrera ixteak eragingo zuen aztarnakopurua murriztea.

Kiputz IX leize-zuloko 3. bandako D eta F mailetakoa aztarnen maiztasuna.






Kiputz IX aztarnategiaren estratigrafia. X. Murelaga.

INDUSKETA LANAK

UPV/EHUko, Aranzadi Zientzia Elkarteko eta Munibe Taldeko jakintza-alor anitzeko talde batek lau indusketa-ekinaldi egin zituen 2004tik 2007ra eta historiaurreko animalien milaka hezur berreskuratu zituzten. Horrela, azken glaziazioeko klima nagusia berreraiki ahal izateko datuak lortu zituzten.

Prozesu neketsua izan zen. Hezurak lurretik atera ostean materialak bahetu eta garbitu egin ziren han bertan. Ondoren, lauki eta azaletan banatu ziren, hezur-zati bakoitzaz



Hasiera eta lehenengo zundaketaren ikuspegi orokorra. 2004. Munibe Arkeologia Taldea.

banako, espezie eta kronologia jakin bati lotu ahal izateko. Azkenik, aleak Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaharberrikuntza Arkeologikorako Zerbitzuan zaharberritu ziren.

Lehenengo zundaketaren hasieran, barrunbea txikia zelako, arrapala txiki bat jarri behar izan zen, sedimentua eta fauna-aztarnak ateratzeko. Muntaketa hori, geroago, indusketa-ekinaldietan erabilitako baheketarako mahai batekin osatu zen.

Zundaketak metro karratu bateko azalera eta hiru metrotik gorako sakonera hartu zuen, eta han berreskuratu ziren lehenengo fauna-aztarnak. Horien lehenengo azterketak, Pedro Castañosek Azkoitian eginak, materialaren aberastasuna, Kantauri aldean urriak diren espezieen agerpena (elur-oreina eta bisontea) eta hezurren kontserbazio-egoera bikaina berretsi zituen. Baldintza horiek aztarnategi honen edukiaren garrantzi eta interes zientifikoaren frogaz zuzena ziren eta haitzuloaren indusketa sistematikoa proposatzearen arrazoia.

Hurrengo hilabeteetan indusketa-baimenen izapideak egin ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuan eta Juan Mari Arrizabala lur-jabearen baimena lortu zen, 2004ko uztailan esku-hartzearen lehenengo ekinaldia hasteko. Horren ondoren beste hiru ekinaldi egin ziren, 2007ko udan aztarnategia hustu zen arte (zegozkion lekukoak utzita).

Haitzuloa neurritz txikia zenez eta betegarria sakonera handian zegoenez, indusketa-ekinaldi bakoitzaren hasieran zurezko plataforma bat eraiki behar izaten zen hasierako zundaketaren erdiko hutsunean, alderdi periferikoak industean fauna-aztarnak hondatzea saihesteko.

Indusketa prozesurako
azpiegitura. 2006.
Munibe Arkeologia Taldea.



Kanpoaldean txirrika bat, materiala eta klasto handiak ateratzeko, eta eskailera desmuntagarri bat, induskatzaileak sartzeko eta ateratzeko, jarri ziren. Berreskuratu-tako materialak bahetzeko eta sailkatzeko mahai bat jarrita osatu zen kanpoaldeko azpiegitura.

Jalkina 10 zm-ko lodierako azaletan altxa zen eta sakoneren kontrol sistematikoa egin zen ontzi komunikatuetan oinarritutako nibelazio-sistema baten bidez. Leize-zulo loko material paleontologiko gehiena hainbat espezie-tako zenbait banakoren hezurdura pilatuz, horizontalki nahiz bertikalki, osatua zegoen. Kasu batzuetan, hezurdura beraren aztarnak jarrera anatomikoan zeuden kontserbatuta, hau da, hil aurretik hartutako jarrera berean.





Jarrera anatomikoan zegoen bisonte baten hezurduraren, eta aurreko eta atzeko hanken xehetasunak. 2018. Aranzadi Zientzia Elkarte

Indusketa-prozesuan zehar, hezur batzuek, neurriagatik eta kontserbazio-egoeragatik, aztarnategian bertan egindako igeltsu-moldezko babes-neurri bereziak behar izan zituzten. Horrela esku hartu ez balitz, haien kontserbazioa arriskuan izango zen eta, horrela, modu eraginkorren mantendu ahal izan ziren behin betiko berreraikitzeko unera arte.

Aztarnak inguratzen zituen substratua bahetu egin zen eta, horrez gain, zenbait koadro eta azaletako lur-laginak jaso ziren, urez bahetuta mikrofauna-aztarnak jaso ahal izateko. Mikroornodunak lortzeko, jalkina haitzuloaren hormetatik urrutien zeuden sektoreetatik jaso zuten, izan ere, sedimentuaren eta hormen artean ur-zirkulazioak egon zitezkeen, sedimentuak eta fosilak lekuz mugituz eta mailak elkar kutsatzea eraginez.



Estepako bisonte baten burezurrari jarritako igeltsuzko babesgarria, aztarnategian bertan egina. 2005. Munibe Arkeologia Taldea.

52



Sedimentua aztarnategian bertan bahetzeko prozesua eta mikrofauna aurkitzeko baheketa. 2004. Munibe Arkeologia Taldea.



Leizearen sarrera. Ezkerrean, indusketan zehar (2004, Munibe Arkeologia Taldea); eskubian, egungo egoera (2018, Aranzadi Zientzia Elkarte).



Lau indusketa-ekinaldiekin haitzuloa ia guztiz hustu zen, hegoaldeko frontean utzi ziren lekukoak izan ezik. Gaur egun ikus daitekeen leizea bi metroko diametroa eta sei metroko sakonerako zuloa da, eta kanpora irekia dagoenez, inguruan dabilen pertsona edo animalientzat arriskutsua. Horregatik, atedun sareta-formako metalezko itxitura bat jarri zen, erorketak saihesteko eta behar zenean barrura sartu ahal izateko.



Kiputz IX aztarnategiko lan-taldea. Ezkerretik eskuinera: Juan Mari Arruabarrena (Munibe Taldea), Pedro Castañós (Aranzadi), Miel Sasieta (Munibe Taldea) eta Xabier Murelaga (UPV/EHU). 2007. Munibe Arkeologia Taldea.

Haitzuloaren hezetasun-mailak erraztu egiten zuen substratu buztintsua hezurren gainazalari itsastea. Kentzeko, urez garbitu ziren indusketa-ekinaldi bakoitzaren ostean. Lehortze-prozesua toki estali eta egurastu batean egin zen, eguzkiak hezurak zuzenean jotzen ez zituela kontuan izanez.



Kiputz IXko materialak garbitzen indusketa-ekinaldi bakoitzaren ondorengo egunetan. 2004. Munibe Arkeologia Taldea.

Ekinaldi bakoitzaren ostean, berreskuratutako aztarnen kopurua handia zenez, koadroka eta azalka banatu ziren, baldintzek utzi zutenean banako berberaren elementu anatomikoak erlazionatu ahal izateko. Metodo horrekin hasierako behin-behineko zaharberritze-lanak ere erraztu egin ziren.



56



Mihizatzeen aukeraketa eta faunaren
lehenengo zaharberritzea.
2004-2005. Munibe Arkeologia Taldea.

Igeltzuzko babesgarria zuten aztarna guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaharberrikuntza Arkeologikorako Zerbitzura bidali ziren, modu profesionalean zaharberritzeko. Lan hori Giorgio Studer-ek egin zuen eta horri esker informazio morfometriko oso interesgarria lortu da. Zaharberritutako aleen artean nabarmentzekoa da bere garrantziagatik estepako bisonte baten garezur osoa.



Zaharberrikuntzak Kiputzen aurkitutako hezurak kontsolidatzen lagundu zuen. Gaur egun, aztarnategi honetako material paleontologiko guztiak Gordailuan jasota daude, hau da, Irunen dagoen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondare Bildumen Zentroan.

Prozesua amaitzeko, Kiputz IX aztarnategian berreskuratutako faunarekin azterketa zehatza egin da. Helburua izan zen, batetik, gure lurraldean milaka urtetan izan ziren ugaztun handiei buruzko informazioa lortzea eta, bestetik, Kuaternarioko azken pultsazio hotzean Kantauri itsasertzean nagusi zen giroa berreraikitzeko zeharkako datuak lortzea. Helburu horiek lortzeko bi azterketa erabili dira: lehenik eta behin,


aztarna bakoitzaren azterketa paleontologikoa eta, ondoren, espezie batzuei dagozkien hezur aukeratu batzuen analisi geokimikoa.

Hezur bakoitza ikuspegi anatomikotik identifikatua izan ostean, aztarnategian ageri diren belarjale eta haragijaleen espezieetatik nori dagokion zehaztu da. Sailkatzeko zailagoak diren hezurretarako Aranzadi Zientzia Elkarteko osteoteka erabili da ugaztunen kasuan, eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Zooarkeologia Laborategiko Alderaketa Bilduma hegaztienean.



Miel Sasieta eta Pedro Castaños hezurdura bat aztertzen. 2004. Munibe Arkeologia Taldea.

Azken hamarkadan, antzinako DNA analisiez gain, izaera geokimikoko teknika berriak agertu dira ikerketa paleontologikoen arloan. Aztarnategi bateko espezieen hezurretako kolagenoko karbonoaren eta nitrogenoaren isotopo egonkorren eta zati mineraleko oxigenoaren (fosfatoa eta karbonatoa) arteko erlazioari esker dietari buruzko eta bizi ziren inguruenari buruzko ingurumen-baldintzen balioespenak egin daitezke.



Karbono, nitrogenu eta oxigeno isotopo egonkorren azterketatik lortutako informazioa.

Kiputz IX aztarnategian berreskuratutako faunaren ezaugarri deigarrietako bat elur-oreinen lagin bikaina da, bai neurriarengatik, bai hezurren kontserbazioagatik. Oraingoaz, Iberiar penintsulako ugariena da eta, gainera, espezie horren hezur osoen proportzio altuak leku nabarmenean jartzen du. Horri gehitu behar zaio oreinen lagina, kontserbazio-baldintza antzekoak dituen eta aztarna kopuru handiagoa duena. Aztarnategi berean kointzidentzia hori berriz gertatzea oso zaila da eta material ezin hobea eskaintzen digu bi espezieen arteko morfologia alderatuz azterketa bat egiteko. Horrelako azterketa baten erabilgarritasuna sendotua geratzen da, gai horri buruz aurrez zeuden lanen urritasuna eta sakabanaketa kontuan hartzen badugu. Horrela, Goi Pleistozenoko faunak lantzen dituzten ikertzaileentzat lanerako tresna berri bat lortu dugu, eta hori izan da Kiputz IXan berreskuratutako faunaren ekarpen garrantzitsuenetakoa.

Jone Castaños
laborategian, analisi
isotopikoen bidez
paleoingurumenari
buruzko informazioa
lortzen. 2014. Aranzadi
Zientzia Elkartea.



GIZAKIAK INGURUAN IBILI ZIREN

Nahiz eta Kiputz IX aztarnategi paleontologikoa izan, badirudi sarritan ezustean erori ziren animalien hondakinak berreskuratzen saiatu zirela gairako gizakiak. Kontuan hartu behar da inguru horretan gizakiak aterpe edo bizileku moduan erabilitako hainbat aztarnategi kokatzen direla, Goi Paleolitoaren bigarren erdialdekoak gehienak, Solutriar eta Madaleniar kulturen baitan (duela 20.000 eta 11.000 urte bitartekoak): Urtiaga, Ermittia, Praileaitz I eta II, Aizkoltxo, etab. Badirudi guzti hauek itsasertzean zeuden kanpalekuetatik etorritako giza-taldetxoak zirela eta koba hauetatik ehizan ibiltzen zirela, beste jardueraz batzuek gain. Horrela uler daitezke Kiputzen sakonera ezberdinetara jaso diren suharri apurrak.

Harrizko industria hau hiru metrora agertzen hasten da, zehazki 11 suharri, gehienak printza-zatiak eta lanketa-hondakin eta ukitze-printzatzoren bat (1. eta 2. irudiak). Azpimarragarriak dira gainezarri daitezkeen bi ijelki-zati, hun beretik ateratakoak. Aztarna hauek duela 15.000 urte ingurukoak dira. Ez litzateke harritzekoa izango hain gertu dauden kobetako Behe Madeleine aldiko biztanleak bertaratu izana leizera eta sartu-irten bat egitea. Kiputz IX ez omen zen baliogarria gizakiak bere eguneroko bizitoki bezala erabiltzeko, baina aproposa zen amildu eta irten ezinda geratzen ziren piztien okelaz edo gorpuaz baliatzeko. Izan ere, gizakiak jarrera oportunistak zuen, eta hildako animalietatik material baliagarria eratorri zitezkeen.




Mutriku eta Deba artean aurki daitezkeen
aztarnategi arkeologikoak, tartean Kiputz IX.
Munibe Arkeologia Taldea.



Mila urte beranduagoko gizakiak utzitako arrastoak ere aurkitu dira, esaterako ikatzak, bi punta dituen azagaia asimetrico bat, ijelki eta ijelkitxoak, hareharrizko lauzatxoak, etab. (3-8. irudiak).

Azkenik, garai berriagoko materiala agertu da, Goi-Azken Madelein aldikoak ziur asko, hareharrizko errekarri baten erdia eta 2 ijelki (9-11. irudiak). Holozenoaren hasieran, Azil aldian, gizakiek tokia aterpe edo abaro-leku gisa erabili ahal izan zuten une labur batean. Horren froga dira aurkitutako bost aleak, ezpaldura bat eta printzak (12 irud.).





7.



8.



9.



10.



11.



12.



EMAITZA GEOKIMIKOAK


Informazio paleontologiko klasikoaz gain, aztarnategi honetako espezie ugarienen hezurren analisi geokimikoak datu interesgarriak eman ditu. Espezieen elikadura-motaren eta Kuaternarioan zeharreko une bakoitzeko ingurumen-baldintza nagusien adierazle onak dira hezurretako karbono- eta nitrogeno-isotopoen balioetako aldakuntzak. Horrela, Kiputz IX-ko oreinen, elur-oreinen eta bisonteen analisi isotopikoen emaitzen bidez paleoingurumenari eta paleodietari buruzko berreraikitzeak egin ahal izan dira.

Karbonoaren isotopo egonkorren aldakuntzen analisiak adierazten du desberdintasunak daukela aztarnategi honetan aztertutako hiru espezieen artean. Emaitzak oso antzekoak dira estepako bisontean eta oreinean, baina elur-oreinean baino balio txikiagoak agertzen dituzte. Horrek adierazten digu elur-oreinak, nahiz eta beste bi espezieak bezala belarjalea izan, beste elementuren bat (likenak) sartzen zituela bere elikaduran bisontearen eta oreinaren elikaduran sartzen ez zena. Hala ere, bisontearen eta oreinaren balio txikiagoek erlazio handiagoa dute gramineoen edo zuhaixken kimu samurren kontsumo handiagorekin.



Kiputz IX aztarnategiaren ondoan ateratako argazkia. Ikerlari taldeko kideak estepako bisontearen garezur osoarekin agertzen dira, ezkerretik eskubira: Javier Alberdi (Munibe), Pedro Castaños (Aranzadi), Jone Castaños (UPV/EHU), Miel Sasieta (Munibe) eta Juan Mari Arruabarrena (Munibe). 2013. Aranzadi Zientzia Elkartea


Bestalde, nitrogenoaren isotopo egonkorren aldakuntzak ingurumen-aldaketen adierazle onak dira. Kiputz IX-ko elur-oreinetan lortutako balioek adierazten dute azken izotz-aroaren moduko hotzaldietan giroa lehorragoa izan zela Kantauri aldean kontinente europarrean baino.



Analisi isotopikoen bidez paleoingurumenari buruz lortutako informazioa.


05

Animalarium




“Eta aurrera begira nengoela, jendea altze eta bisonte bihurtu zen, lau hankako beste edozein pizti, baita hegazti ere. Denak bide gorrian modu sakratuan elkarrekin zihoazen”

Heñáka Sápa (1863-1950)



Kiputz IX aztarnategian 18.296 hezur, hortz eta adar, oso edo zati, berreskuratutuz ziren. Horietatik 12.696 identifikatu dira anatomikoki eta taxonomikoki, hau da, berreskuratutako lagin osoaren ia % 70. Ugaztunen 16 espezieri dagozkio eta haietatik erdiak belarjaleak dira (zaldia, estepako bisontea, basahuntza, sarrinoa, oreina, elur-oreina, orkatza eta basurdea) eta gainetakoak haragijaleak (hartz arrea, lehoia, basakatua, otsoa, azeria, azkonarra, lepahoria eta ipurtatsa). 14 espezieri dagozkion 230 hegazti-aztarna ere aurkitu ziren. Hiru belarjale espezie nabarmentzen dira ugartasunagatik eta aztarnen kontserbazio-egoera onagatik: oreina, elur-oreina eta estepako bisontea.



Glaziazio osteko paleoingurua © Museo de Altamira. Ministerio de Cultura y Deporte de España. Marrazkia: M. Antón.



OREINA



Iparraldean, Iberiar penintsulako gainerakoan bezala, oreina (*Cervus elaphus*) izan ohi da espezie ugariena historiaurreko ehiztari-taldeek hartutako haitzulo gehienetan. Soilik paleontologikoak diren lekuetan ere azaltzen da. Kiputz IX-ko lagina azken mota horretako aztarnategietan dago, eta haren neurriagatik, nahiz hezurren kontserbazio-egoeragatik, espezie honen Iberiar penintsulako multzo bakanetakotzat har daiteke.



KIPUTZ

Bertan gutxienez 43 orein daude islaturik, eta emeak arrak baino zerbait gehiago dira. Hortz-haginak aztertuta ikusten da helduarora iristear zeudenen eta jaioberrien banakoen multzoa gazteen eta helduenari gailentzen zaiola. Azterketa metriko konparatzaileak baieztatzen du Kiputz IX-ko oreinen hezurdurako hanketako hezurak Liñaresekoak (Lugo) -alderatzeko moduko Kantauriko lagin bakarra- baino zabala-goak eta apur bat luzeagoak direla. Dena den, Kantauriko Erdi eta Goi Paleolitoko laginen multzo batean masen alderaketa-indizea (VSI) ezartzeak ez du izaera kronologiko edo geografikoko inolako joerarik erakusten.

72



Kiputz IX-ko orein
matrailezurra eta falangeak.





ELUR-OREINA



Elur-oreina (*Rangifer tarandus*) Europan Erdi Pleistozenoan agertzen den espeziea da eta mamuta eta errinozero iletsuaren gisako espezieei lotuta agertu ohi da aldirik hotzenetan; aldiz, aldi epelagoetan latitude altuagoetara atzeratzen da. Haren presentzia goren mailara iritsi zen duela 18.000-20.000 urte, azken izotz-aroaren garaian; hain zuzen ere, garai horri dagozkio Kiputz IX-ko aztarna gehienak. Iberiar penintsulan iparraldeko ertzean soilik agertzen da, batez ere Kantauri ekialdean.



Kiputz IX aztarnategia da Iberiar penintsulan elur-orein lagin handiena eman duena: 2.186 aztarna. 23 banako desberdinen hezurak daude. Horietatik arrak emeak baino askoz gehiago dira, eta banako helduak gazteak baino gehiago.

76 Kiputz IX-ko elur-oreinaren neurriak Europa mendebaldeko altuenerako artean daude; Alemaniako Stellmoor aztarnategikoarekin soilik aldera daitezke. Bi kasuetan espezie honen dimorfismo sexuala eta bi multzoetan arrak gehiago direla izan daiteke arrazoia.




Kiputzen berreskuratutako elur-orein baten hezurdura osoa berreraikitzen Gordailuan. 2018. Aranzadi Zientzia Elkartea.



Kiputz IX-n
aurkitutako
orein baten
falangeak eta
adar zatia.

Estepako BISONTEA



78


